

lehiaketa

Debabarreneko ingurumena argazkietan biltzeko lehiaketa

Debegesak, Debabarreneko Garapen Ekonomikoaren Elkarteak, Eko-argazki izeneko bigarren argazki lehiaketa antolatuko du. Lehiaketara aurkezten diren argazki guztiak Debabarreneko ingurumena eta landa ingurua izan behar dute ardatz nagusitzat. Epaimahaia eskualdeko hainbat argazkilari elkartetako kideek

osatua da, eta kontuan izanen ditu irudiak gaiarekin duen lotura, argazkiaren kalitatea eta egilearen irudimena. Euskal Herrian bizi den edonork har dezake parte. Argazkiak aurkezteko epea otsailaren 14a arte dago zabalik. Sari banaketa otsailaren 21ean egingen dute. Irabazleak 420 euro eskuratuko ditu, eta bigarrenak, 210 euro. Iazko lehiaketa Santos Vega ermuarrak irabazi zuen, Ermuan Ego ibaia-ri ateratako argazki batekin.



XABIER ARANGUREN

Lehiaketarako argazkiek Debabarreneko ingurumena izan behar dute ardatz.

musika

ARETXABAETA. Kokein. Bihar, 22:30ean, gaztetxean.

BASAURI. Tapia eta Leturia. Bihar, 22:00etan, Social antzokian.

BERGARA. The Inmortal Lee County Killers, Nuevo Catecismo Catolico, PILT, Cool Panic eta X-At. Bihar, 21:30ean, Jam aretoan.

BILBO. Bilboko Orkestra Sinfonikoa. Gaur eta bihar, 20:00etan, Euskalduna jauregian.

Peer Wyboris, Jose Luis Canal eta Jon Piris (jazza). Gaur, 21:00etan, Palladium aretoan.

Patacho. Gaur, 22:00etan, Azkena aretoan.

Mikel Markez eta Pako Aristi. Abiadura handiko urte baten kronika ikuskizunarekin. Gaur, 22:00etan, Kafe Antzokian.

The Hangmen. Bihar, 22:00etan, Azkena aretoan.

DONOSTIA. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Gaur eta bihar, 20:00etan, Kursaallean.

Pansequito. Gaur, 21:00etan, Antzoki Zaharlean.

GERNIKA. Store Ville eta Psicopatas del Frame. Bihar, 22:00etan, Lizeo antzokian.

HENDAIA. Ekintza. Bihar, 22:00etan, Zugana Kanitu ostatuan.

IRUN. Doktor Deslai. Bihar, 23:00etan, Tunk! aretoan.

IRUÑA. 'La generala' zarzuela. Gaurtik igandea arte, 20:00etan, Gaiarre antzokian.

MIARRITZE. Blues gaua. Gaur, 19:30ean, Mundaka ostatuan.

ONDARROA. Mikel Markez eta Pako Aristi. Abiadura handiko urte baten kronika ikuskizunarekin. Bihar, 22:30ean, Kafe Antzokian.

ZORNOTZA. Luis Camino & Abya Yala. Bihar, 21:00etan, Zornotza aretoan.

antzerkia

BAIONA. 'Tartuffe'. Gaur eta bihar, 21:00etan, Baiona antzokian. Argia taldeak taularatua.

BILBO. 'Diez'. Gaur eta bihar, 20:00etan, Arriaga antzokian. Juan Luis Galiardo aktorearekin.

'El sonido de mi mente'. Bihar, 20:00etan, Bilborock aretoan. Neverland taldearen eskutik.

ELORRIO. 'El amigo de John Wayne'. Bihar, 22:30ean, Arriola

hitzaldia

'Desobedientzia zibileko esperientziak'. Gaur, Bilboko Hikaateneoan (19:30ean).



EGUNKARIA

Itoitzekiko Elkartasun Taldeko kide bat urtegiako kableak moztzen 1996an.

Intsumisioaren eta Itoitzen inguruko borroka aztergai

Bilboko Hikaateneoan otsailean egingen dituzten desobedientzia zibilar buruzko jardunaldien aurrerapen gisa, gaur intsumisioaren eta Itoitzen inguruko borroken azterketa egingen dute Josune Gartzia (KEM) eta Mabel Cañadak (Itoitzekiko Elkartasun Taldea).

aretoan. Ados taldeak emana.

GASTEIZ. 'Luces de Bohemia'. Gaur, 20:30ean, Principal antzokian. Ur taldeak emana.

IZPURA. 'Louis, l'enfant de la nuit'. Bihar, 21:00etan, Bentaberrin. The Train konpainiak emana.

MIARRITZE. 'Claude Roy, l'ami proche'. Gaur, 20:00etan, Kasinoan. Suzanne Flonek eta Claude Afaurek emana.

PASAI. 'Morgan pirata gaiztoa lapurretan'. Bihar, 18:00etan, Trintxerpeko liburutegian. Ane Monna, Oskola eta Karamarroi maskotekin.

ZIZUR NAGUSIA. 'Reich'. Bihar, 22:00etan, kultur etxean. K-7 taldearen eskutik.

hitzaldiak

ANDOAIN. 'Prestige petroliontzia hondamendia'. Gaur, 19:30ean, kultur etxean. Hizlariak: Jose Ramon de Miguel (itsas merkataria), Jose Ramon Varela (Galizian lanean ibilitako boluntarioa), eta Ekologistak Martxan taldeko kide bat.

BILBO. 'Desobedientzia zibilar buruzko jardunaldiak.

Esperientzien balorazioa: intsumisioa eta Itoitz'. Gaur, 19:30ean, Hikaateneoan. Hizlariak: Josune Gartzia (KEM) eta Mabel Cañada (Itoitzekin Elkartasun Taldea).

DONOSTIA. 'Tecnologia y liderazgo'. Gaur, 19:00etan, Miramongo parke teknologikoan. Pedro Luis Uriarteren eskutik.

'El negocio de la guerra: dinamicas de oposicion y resistencia; el paradigma de la agresion a Irak'. Solasaldia. Gaur, 19:30ean, Egiako Txoko Internazionalistan.

EIBAR. 'AHTrik ez'. Gaur,

20:00etan, gaztetxean.

GASTEIZ. 'Pasado y presente de las comunidades indigenas shuar. Amazonia ecuatoriana'. Gaur, 20:00etan, Hikaateneoan.

Tseremp Tsenkush shuar herri erakundeetako ordezkariak emana.

GETARIA. 'Proyectos realizados por la ONG ELAN-Euskadi en Venezuela'. Gaur, 20:00etan, Alondiga Zaharlean. Edward Castillok emana.

GETXO. 'La renuncia nacional del PNV. 1977-2002'. Gaur, 20:00etan, Branka elkartearen Jose Mari Lorenzo Espinosaren eskutik.

HERNANI. 'Vida y milagros de un anarquista de 90 años'. Gaur, 20:00etan, Andragoto elkartearen.

IRUÑA. 'Bost idazle, irakurle baten begietatik'. Gaur, 20:00etan, Erraldoien Txokoan. Hasier Etxeberria kazetari eta idazlearen eskutik.

'Abiadura Handiko Trenaren aurkako hamaika arrazo'. Gaur, 20:30ean, NAPIko euskaltegian (Navarrerria, 39). Paulino Huarteren eskutik.

UHARTE. Grafologiari buruzko hitzaldia. Gaur, 19:00etan, Zubiarte euskaltegian. Fernando Trebolan

eskutik.

VIANA. 'Osasuna eta Nafarroako futbola'. Bihar, 19:00etan, kultur etxean. Hizlariak: Jan Urban, Eugenio Bustingorri eta Jon Andoni Goikoetxea Osasunako jokalaria ohiak.

ikus-entzunezkoak

BEASAIN. 'La boda del monzon'. Gaur, 21:00etan, Usurbe antzokian.

BILBO. 'Warnung Vor Einer Heiligen Nutte'. Gaur, 18:00etan, Arte Eder museoan.

'Der Amerikanische Soldat'. Gaur, 20:15ean, Arte Eder museoan.

DONOSTIA. 'Emakume zuzendariak' zikloa. Gaur, 20:00etan, Lugaritz kultur etxean. Dokumentalak: *La venda*, eta *Warrior marks*.

'Gauak bizi' zikloa. Bihar, 00:00etan, Antzokia Zaharlean. Film laburrak: *Flatworld*, *Sin sosten*, *El desafio de la muerte*, *The stone of Folly*, *Wals voor de Storm*, eta *Insight*.

LASARTE. 'La caja 507'. Gaur, 22:00etan, kultur etxean.

bertsolaritza

BERMEO. Igor Muniategi, Ibon Ajuria, Jon Rementeria eta Beñat Gaztelurrutia. Bihar, 20:30ean, Naia tabernan.

BERRIZ. Txomin Magdallena, Ander Salaberri, Mile arrillaga eta Iratxe Ibarra. Bihar, 22:00etan, Fonda tabernan.

BILBO. Matxalen Zabaljauregi, Josu Martinez, Jagoba Pereda eta Lekue Etxahun. Gaur, 21:00etan, Santutxuko Herrikoa tabernan.

DEBA. 'Iturrian zer dago?' ikuskizuna. Bihar, 22:30ean, Zubeltza aretoan. Xukan taldearen eskutik. Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariekin.

MUNGIA. Miren Ibarluzea, Gorka Ostolaza, Peru aranburu eta Ander Oleaga. Bihar, 21:30ean, Kos ostatuan.

bestelakoak

DONOSTIA. 'Marimarrubi' ipuin kontaketa. Gaur, 18:00etan, Egia kultur etxean.

EIBAR. Elkartruke azoka. Larunbatean, 11:00etatik 14:00etara,